



IV. ERANSKINA – INTERES-GATAZKARIK EZ DAGOELAKO ADIERAZPENA (IGEA)

Dirulaguntzen programaren izena:

Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak handitzea eta/edo berritzea

Espedientearen erreferentzia: _____

_____, C24.I2.P4 proiektuan («Liburutegien zuzkidura») definitutako helburuak lortzeko PRTRtik eratorritako baliabideen bidez finantzaturako laguntzen onuradun gisa,

ADIERAZTEN DUT:

Lehenengoa. Ezagutzen ditudala hauek:

1.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko Finantza Erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

B) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta



egotea aholkularitza, ordezkarietza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izatea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez nago sartuta dirulaguntza-prozeduran esku hartzen duen norbait EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan jasotako kasuren batean egotea eragin dezakeen inongo egoeratan; halaber, ez daukat abstenitzeko kausarik prozeduran esku hartzen duen inor dela-eta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan xedatutako kausei dagokienez, eragina eduki duenik edo eragina eduki ahal izan duenik dirulaguntza emateko prozeduran edo deialdiko oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko prozeduran.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dut luzamendurik gabe jakinarazteko organo eskudunari dirulaguntza emateko prozeduran esku hartzen duen norbait dela-eta interes-gatazka sortzen dela edo egoera horretara daraman edo eraman dezakeen abstenitzeko kausa bat dagoela.

Laugarrena. Konfidentziasunez tratatuko ditut onuradun gisa eta dirulaguntza-prozedura honen baitan gauzatu behar ditudan jardueretatik eratorritako betebeharrak betetzeko ezagut ditzakedan gai eta dokumentuak, eta ez dut era desegokian erabiliko dirulaguntza-prozeduran parte hartzen duen onuradun gisa jaso dezakedan informazioa.

Bosgarrena. Ezagutzen dut interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboak eta judizialei aurre egin beharko diedala.

_____ (e)n, sinadura elektronikoaren egunean,